

NAFARROAKO KLIMA-ALDAKETARA EGOKITZEKO LIFE-IP NADAPTA-CC PROIEKTUAREN KOSTU- ONURA AZTERTZEA

Posted on 30/01/2024 by Naider

Category: [Albisteak](#)

Tags: [Analisi Ekonomikoa](#), [Análisis Coste-Beneficio](#), [Evaluación de impactos](#)

[NASUVINSA](#)k, Nafarroako Gobernuak etxebizitza eta hirigintzako sozietate publikoak, NAIDERen laguntza teknikoa izango du Foru Komunitateko klima-alaketara egokitzeko [LIFE-IP NAdapta-CC](#) proiektuaren esparruan garatzen ari diren jarduketan eragina aztertzeko eta ebaluatzeko, zehazki, C6 ekintzan ezarritako neurriena.

Inpaktuen ebaluazioa Kostu-Onura Analisiaren (KOA) metodologiaren bidez egingo da. NAIDERek garatu du metodologia hori, nazioarteko hainbat erreferentzia-esparrutan oinarrituta, eta hainbat proiektu eta esku-hartzetan aplikatu du, LIFE IP ekimenetan barne. KOA analisiari esker, etekinen argazki bat lor daiteke inbertsioak dakartzan gastuen aurrean, eta, beraz, errazagoa da horrelako proiektuetan erabakiak hartzea.

LIFE-IP NAdapta-CC proiektua Nafarroako klima-alaketara egokitzeko estrategia integratua da. Gerta daitezkeen aldaketei aurrea hartzea da proiektuaren helburua, aldaketa horien ondorio negatiboak mugatuko dituzten egokitzapen-neurriak garatuz eta, ahal den neurrian, inpaktu positiboak aprobetxatuz.

